



LEGEZKO OHARRA ETA PRIBATUTASUN POLITIKA

1. TITULARRAREN NORTASUN DATUAK

Aurrerago adieraziko diren zehaztapen eta baldintzek HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN (aurrerantzean, HAURRESKOLAK) titulartasuneko <http://www.haurreskolak.eus> (aurrerantzean, webgunea) URL helbidearen sarbidea eta erabilera arautzen dute.

Izen soziala: HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Egoitza soziala: Otaola etorbidea 29, 1. solairua, Jaizkibel eraikina, PK 20.600, Eibar (Gipuzkoa)

IFK / IFZ: P-0100385-D

Telefonoa: 943.82.17.50

Faxa: 943.82.19.03

Posta elektronikoa: haurrekolak@haurrekolak.eus

2. SARRERA

Dokumentu honek HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN jabetzako WEBGUNE atari honen erabilera-baldintza orokorrak ezartzen ditu.

WEBGUNE honen sarbideak ERABILTZAILE izaera ematen dio sartzen denari, eta sarbide horrek edozein ERABILTZAILE baldintzatzen du klausula hauetan jasotako zehaztapenak, baldintzak, komunikazioak, abisuak eta legezko gainerako oharrak aurrez irakurtzera eta onartzera.

WEBGUNE honetan eremu mugatu bat dagoenez, WEBGUNE honetatik bertan gehitutako edukietara sartzeko, aurrez erregistratu egin behar da. ERABILTZAILEA erregistratu eta datu pertsonalak ematean, datu horien bilketari eta geroko tratamenduari 8. baldintzan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Beste WEBGUNE batzuekin izan daitekeen konexioak eta ERABILTZAILEAK horiekin egin dezakeen erabilera erabilera-baldintza orokor hauen mende daude, eta WEBGUNE horiek behar dituzten balizko berariazko baldintzen mende.

Baimendutakoa ez den edozein erabilera debekatuta dago.

3. ZERBITZU EMAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

3.1) Betebehar orokorrak

HAURRESKOLAK Partzuergoak, zerbitzuaren hornitzaile den aldetik, WEBGUNE honetan eskainitako



zerbitzuak emango ditu eta modu eraginkorrean bermatuko du ERABILTZAILEAREKIN izan daitezkeen komunikazioen konfidentzialtasuna eta egin litezkeen erreklamazioei erantzungo die.

3.2) Aldaketak

HAURRESKOLAK Partzuergoak, WEBGUNEAREN prestazioak hobetzeko, edozein unetan aldatu, zabaldu edo eten ditzake aldi baterako WEBGUNEAREN aurkezpena, konfigurazioa, zehaztapen teknikoak, edukiak eta zerbitzuak, aurrez abisatu behar izan gabe.

4. ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Erabilera-baldintzak

Une oro, WEBGUNE honen bidez emandako zerbitzuen erabilera zuzena egin beharko du ERABILTZAILEAK, eta ezingo du egin zilegi ez den jarduerarik edo indarrean den legeriaren aurkakorik.

Ildo horretan, ERABILTZAILEAK konpromiso hauek hartzen ditu:

- HAURRESKOLAK Partzuergoak haren esku jartzen dituen zerbitzuen bidez edukietan kaltea edo aldaketaren bat sortzen duen inolako ekintzarik ez egitea.
- WEBGUNEAREN funtzionamendu zuzena ez oztopatzea.
- Inolako arazo teknikorik ez sortzea.
- Ez transferitzea elementurik birus informatikoak izan ditzakeenik edo WEBGUNE hau guztiz edo zati batez kaltetu, oztopatu edo eten dezakeenik.
- Beste erabiltzaile batzuen posta elektronikoan ez parte hartzea edo hura aldatzea.

ERABILTZAILEAK baimena du espresuki WEBGUNE honetan jasotako informazio guztia bistaratzeko, baita bere sistema informatikoetan haren erreprodukzio pribatuak egiteko ere, baldin eta eduki horiek bere erabilerarako soilik badira eta hirugarrenei lagatzen ez badizkie.

5. BERMEAK ETA ERANTZUKIZUNA BAZTERTZEA WEBGUNEAREN ETA HAREN ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUAGATIK

5.1) Sarbidea

WEBGUNERAKO sarbidea zein hor jasotako informazioarekin egin daitezkeen erabilera ERABILTZAILEAREN erantzukizuna dira soilik, eta HAURRESKOLAK Partzuergoa ez da erantzule izango sarbide horren edo informazio-erabileraren ondorioz sor daitezkeen edozein ondorio, kalte edo galeraren



aurrean. Salbuespenak izango dira haren jarduera garatzean jarraitu behar dituen legezko xedapenen ondorioz sor daitezkeen jarduketa guztiak.

5.2) Webgunearen funtzionamendua

HAURRESKOLAK Partzuergoak ez du bermatzen WEBGUNE honen funtzionamenduaren eskuragarritasuna eta jarraitutasuna, ezta haren zerbitzuena ere.

Horrela, WEBGUNEAREN eta haren zerbitzuen funtzionamenduaren eskuragarritasun eta jarraitutasun faltagatik sor daitekeen edozein izaeratako kalte-galerengatik sor daitekeen edozein erantzukizun baztertzen da.

Aurrekoa hala izanik ere, HAURRESKOLAK Partzuergoak bere ahaleginak egingo ditu WEBGUNE honen eta haren zerbitzuen eskuragarritasun jarraituari eusteko.

5.3) Bestelakoak

HAURRESKOLAK Partzuergoak ez ditu bermatzen inguruabar hauen ondoriozko kalte-galerak eta ez da horien erantzulea:

- Baimenik gabeko hirugarrenek sartzeko inguruabarrez eta ERABILTZAILEEK WEBGUNEAZ eta zerbitzuez egiten duten erabileraz jakin dezaketena.
- WEBGUNE honen edukietan birusak edo beste elementu batzuk egotea, ERABILTZAILEAREN sistema informatikoan (softwarean eta hardwarean) edo haren sistema informatikoan gordetako dokumentu elektronikoko eta fitxategietan aldaketak sor ditzaketenak.
- WEBGUNEAREN sarbidean eta haren edukian akatsak egotea. Horregatik, ERABILTZAILEAK edozein erantzukizunez salbuesten du HAURRESKOLAK Partzuergoa, webguneak sor dezakeen fidagarritasunari, erabilgarritasunari edo espektatibei dagokienez.

6. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

HAURRESKOLAK WEBGUNE honetan jasotako edukien zein elementu guztien jabetza intelektualaren titularra da, horietan ez bada adierazten beste titular bati dagozkiola. Horregatik, horien titularrei soilik dagozkie erreproduzitzeko, banatzeko, komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak.

WEBGUNE honen diseinua, irudiak, mapak, markak, errotuluak, HAURRESKOLAK Partzuergoaren zeinu bereizgarriak edo logoak, etab. HAURRESKOLAK Partzuergoaren jabetzakoak dira, eta hark bakarrik ditu horiek ustiatzeko eskubideak legez.

WEBGUNE honetan sartzen den ERABILTZAILEAK ezin ditu kopiatu, aldatu, banatu, transmititu, erreproduzitu, argitaratu, laga, saldu lehenago aipatutako elementuak edo lortutako informazioaren bidez



produktu edo zerbitzu berriak sortu.

ERABILTZAILEAREN erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako bistaratzea eta kargatzea baino ez da baimentzen, eta ezin du hedatu hirugarren pertsona edo entitateetara.

Gutziz debekatuta dago ERABILTZAILEAK WEBGUNE hau aldatzea, haren edukian eragina izan badezake, hala nola estekak (edo linkek) eta antzekoak.

HAURRESKOLAK Partzuergoak zaindu egingo du WEBGUNE honen edukiak ez daitezen izan pornografikoak, xenofoboak, bereizkeriazkoak, arrazistak, difamaziozkoak edo indarkeria sustatzen dutenak.

Edukien edozein erreprodukzio, banaketa, komunikazio eta eraldaketa, titularrek espresuki baimendu ez dutena, legeak babestutako jabetza industrialaren eta/edo intelektualaren eskubideen urraketa bat da.

HAURRESKOLAK Partzuergoak dagozkion egintza administratibo, zibil edo penal guztiak erabil ditzake ERABILTZAILEAK eskubide horiek urratzen baditu.

7. ESTEKAK EDO LOTURAK

Ezingo da inolako estekarik sortu beste edozein WEBGUNETATIK HAURRESKOLAK Partzuergoak aurrez eta espresuki idatziz baimentzen ez badu.

WEBGUNE honek HAURRESKOLAK Partzuergoak kudeatu gabeko beste atari edo WEBGUNE batzuekin estekak edo loturak baldin baditu, sozietate honek adierazten du ez duela inolako kontrolik atari edo WEBGUNE horien gainean, eta ez dela horien edukien erantzule. WEBGUNE honek izan ditzakeen linkak erreferentzia informatibo gisa soilik eskainiko dira, eta ez da inolako baloraziorik egingo horietatik eskainitako eduki, jabe, zerbitzu edo produktuez.

Azaldutako pribatutasun-politika WEBGUNEARI aplikatzekoa da, eta ez da bermatzen gune honekiko esteken bidezko sarbideetan, ezta gune honetatik beste WEBGUNE batzuekiko esteken bidezkoetan ere.

Nolanahi ere, HAURRESKOLAK Partzuergoak ez da hirugarren horiek emandako zerbitzuen erantzule, horiei dagokienez egin daitekeen edozein erreklamazio eta demandaren aurrean.

8. PRIVATUTASUN POLITIKA. DATU PERTSONALEN BABESA

8.1) Datu Pertsonalen Babesa

Jakinarazten dizugu HAURRESKOLAK Partzuergoak bildutako datu pertsonalak HAURRESKOLAK Partzuergoaren jarduerara bideratutako sozietatearen titulartasuneko fitxategi batean gehituko direla, xede hauekin:



- 1) Inskribatutako erabiltzaileen alta eta mantentze-lanen prozesuak kudeatzea, eta
- 2) HAURRESKOLAK Partzuergoaren WEBGUNEAN harremanetan jartzeko ERABILTZAILEAREN esku jartzen den edozein moduren bidez ERABILTZAILEAK egindako eskabideak edo edozein eskaera tramitatzea.
- 3) WEBGUNEAREN albiste-buletina igortzea.
- 4) HAURRESKOLAK Partzuergoaren jarduerarekin lotutako beste batzuk.

Datu horiek beharrezkoak dira zerbitzu, produktu eta soluzio horiek behar bezala eskaintzeko.

Ildo horretan, HAURRESKOLAK Partzuergoak WEBGUNEAREN bidez bildutako informazioa konfidentziasan handienarekin tratatuko da, eta beti abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestekoan (aurrerantzean, DBLO) xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zu jakinaren gainean geratzen zara eta onartu egiten duzu zure datuak HAURRESKOLETAN parte hartzen duten entitateetara komunika daitezkeela, lehenago adierazitako zerbitzuak ematen jarraitzeko xede bakarrarekin.

Baduzu eskubidea edozein unetan zure datu pertsonaletan sartzeko, horiek zuzentzeko, indarrik gabe uzteko edo horien aurka egiteko, helbide honetan idatziz eskatuta: HAURRESKOLAK PARTZUERGOA, Otaola etorbidea 29, 1. solairua, Jaizkibel eraikina, PK 20.600, Eibar (Gipuzkoa).

8.2) Segurtasuna datuen tratamenduan, prozesu informatikoan eta zaintzan

HAURRESKOLAK Partzuergoak adierazten eta bermatzen du badituela datu pertsonalak babesteko segurtasun-mailak, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuari, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestekoa (aurrerantzean, DBLO) garatzeko Erregelamendua onartzekoari jarraituz. Era berean, adierazten du bere esku dauden neurri tekniko eta antolakuntzako guztiak ezarri dituela datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta saihesteko ERABILTZAILEAK emandako datuak galtzea, gaizki erabiltzea, baimenik gabe eskuratzea eta lapurtzea.

8.3) Sartzeko, zuzentzeko, indarrik gabe uzteko edo aurka egiteko eskubideak

HAURRESKOLAK Partzuergoa WEBGUNEAREN ataletan biltzen diren datu guztien erantzulea da. Nahi baduzu, edozein unetan erabil ditzakezu DBLOan aurreikusitako sartzeko, zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta aurka egiteko eskubideak, HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN helbide honetan idatziz eskatuta: Otaola etorbidea 29, 1. solairua, Jaizkibel eraikina, PK 20.600, Eibar (Gipuzkoa).

9. COOKIEN POLITIKA

Zerbitzu-emaileak, bere kabuz edo neurrerik gabe zerbitzuak emateko hirugarren kontratatu baten bidez, cookiak



erabil ditzake erabiltzaile batek webgunean nabigatzen duenean. Cookiak web-zerbitzari baten bidez nabigatzaile baidalitako fitxategiak dira, nabigazioan zehar erabiltzailearen jarduerak erregistratzeko eta erabiltzaileak webgunea berriz bisitatzen duenean gogoratzeko, horien erabilera eta nabigazioa errazteko.

Cookiak honela sailka daitezke: horiek kudeatzen dituen entitatearen arabera (propioak edo hirugarren batenak), aktibatuta egoten diren denboraren arabera (saiokoak edo iraunkorrak) edo haien xedearen arabera (teknikoak, pertsonalizaziokoak, analisisikoak edo publizitarioak, besteak beste).

Webgune honetan erabilitako cookiak, beti ere, aldi baterakoak dira, gerorako transmisioa eraginkorragoa egiteko xedea dute soilik eta erabiltzaile anonimo batekin eta haren ordenagailuarekin soilik lotzen dira. Cookiak ez dira inoiz erabiliko informazio pertsonala biltzeko.

Cookiak erabilia, webgunea dagoen zerbitzariak erabiltzaileak erabilitako web-nabigatzailea ezagut dezake nabigazioa errazagoa izan dadin eta aukera dago, adibidez, aurrez erregistratu diren erabiltzaileak sartzeko eta soilik haien gordetako eremu, zerbitzu, sustapen edo lehiaketetan sartzeko, bisita bakoitzean erregistratu behar izan gabe. Entzuleria eta trafikoaren parametroak neurtzeko eta sarreren aurrerapena eta kopurua kontrolatzeko ere erabiltzen dira.

ERABILTZAILERAK aukera du bere ordenagailuaren nabigatzailea bere premia pertsonalen arabera konfiguratzeko, cookiak jasotzen dituela ohartzeko eta horiek disko gogorrean instalatzea ekiditeko.

ERABILTZAILERAK uko egin diezaioke datuen tratamenduari edo informazioari, bere nabigatzailearen konfigurazio egokia hautatu eta cookien erabilera baztertuta, baina ERABILTZAILERAK jakin behar du hori egiten badu, agian ez duela izango webgune honen funtzionaltasun osoa. Mesedez, kontsulta itzazu zure nabigatzailearen jarraibideak eta eskuliburuak informazio hori zabaltzeko.

10. BAZTERTZEKO ETA ZERBITZUAN BAJA EMATEKO ESKUBIDEA

Edozein unetan eta edozein arrazoirengatik, HAURRESKOLAK Partzuergoak behin-behinean eten dezake ERABILTZAILERAK guztiak edo batzuk edukietan sartzea, inolako eperik bete behar izan gabe, eta nahikoa izango da komunikazio soil bat, inolako erantzukizunik izan gabe.

HAURRESKOLAK Partzuergoak eskubidea du WEBGUNEAREN eta/edo eskainitako zerbitzuen sarbidea ukatzeko edo kentzeko, aurrez abisatu gabe, bere kabuz edo hirugarren batek eskatuta, erabilera-baldintza orokor hauek betetzen ez dituzten ERABILTZAILERAK.

ERABILTZAILERAK edozein unetan eska dezake baja WEBGUNEAREN eremu mugatuko zerbitzuetan, eta horretarako HAURRESKOLAK Partzuergoak jo beharko du 8. baldintzan ezarritako prozedurari jarraituz. Baja hartutako ERABILTZAILERAK emandako informazioa HAURRESKOLAK Partzuergoak gordeko du, hark ezezkua ematen ez badu 8. baldintzan aurreikusitako moduan.

11. IP HELBIDEAK



Webgunearen zerbitzariak modu automatikoan detekta ditzakete ERABILTZAILEAK erabilitako IP helbidea eta domeinuaren izena. IP helbide bat ordenagailu bati modu automatikoan esleitutako zenbaki bat da, hori Internetera konektatzen denean. Informazio hori guztia behar bezala inskribatutako zerbitzariaren jardura-fitxategi batean erregistratzen da, eta aukera ematen du datuak gero prozesatzeko, neurketa estatistiko soilak lortzeko, eta jakiteko orrialde inprimatuen kopurua, web-zerbitzuetara egindako bisita kopurua, bisiten hurrenkera, sarbide-puntua, etab.

12. SEGURTASUNA

Webguneak industrian oro har onartutako informazioaren segurtasun-teknikak erabiltzen ditu, hala nola firewallak, sarbide-kontrolako prozedurak eta mekanismo kriptografikoak, hori guztia datuetan baimenik gabe sartzeko ekiditeko. Xede horiek betetzeko, ERABILTZAILEAK onartu egiten du zerbitzu-emaileak datuak lortzea sarbide-kontrolari dagokien autentikazioa egiteko.

13. JURISDIKZIOA ETA APLIKATZEKO DEN LEGERIA

<http://www.haurreskolak.eus> atarian sartzeko eta hori erabiltzeko baldintza orokor hauek eta ERABILTZAILEAREN eta HAURRESKOLAK Partzuergoaren arteko edozein hartu-eman legeria espainolaren arabera arautuko dira. ERABILTZAILEAREN eta HAURRESKOLAK Partzuergoaren arteko hartu-emanen existentziaren, edukiaren eta/edo aplikazioaren ondorioz sortutako edozein auzitarako, bi aldeek, dagokien beste edozein barrutiri espresuki uko eginik, soilik Donostiako Auzitegi eta Epaitegien jurisdikzioaren eta eskumenaren mende jartzen dira.